

bidaiari

naiz: en bidaia aldizkaria

2023ko otsaila | 017. zenbakia | 1,50€



JEONJU

Koreako etxe tradizionalen hiria

OMAN | BUSSACO | ENEKO REDONDO | MO'OREA | TALAIA BIDEA | ARABAKO ERRIOKA

Badago ezagutzeko mundu bat



bidaiari
naiz:-en bidaia aldizkaria

11 ZENBAKI URTEAN, 15€

HARPIDETU ZAITEZ!

URTEKO HARPIDETZA Euskal Herrian 15€ · Ipar Euska Herrian 25€ · Estatu espainolean 18€ · Europan 50€

Bidal ezazu kupoi hau honako helbide honetara:

Bidaiari Portuetxe 23, 2. solairua 20018 Donostia (Gipuzkoa) EUSKAL HERRIA

Izena			
Abizenak			
Helbidea			
Herria	Posta Kodea	Herrialdea	
NAN	E-Posta	Telefonoa	
Kontu korrante zenbakia			
Kontuaren Jabea			

Nahiago izanez gero, mezu elektronikoa bat bidal dezakezu bidaiari@astero.net helbidera, kupoiaren azaltzen diren datuekin edo www.naiz.eus/bidaiari web orrian sar zaitezke eta harpideteko formularioa bete dezakezu.

Urruina distribution & services, S.L.-ren produktuei eta/edo sustapenei buruzko informaziorik jaso nahi ez baduzu, markatu X bat laukian ☐

Sustapen honen barruan jasotako datu pertsonalak Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) eta Urruina distribution & services SL-en (Kale Nagusia 2 - 4, 48001 Bilbo) datu-base batean sartuko dira. Datuak guztiz konfidentzialak dira, datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko lege Organikoari jarraiki. Nolanahi ere, eskuratzeko, zuzentzeko, aurka egiteko edo ezereztzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzu. Horretarako, Herritar Berri SLU (Portuetxe 23, 2. 20018 Donostia) helbidera jo behar duzu.

bidaiari 017

2023ko otsaila

Zazpi Haizetara
aldizkariaren 166.
zenbakia litzatekeena

AZALEKO ARGAZKIA:

Xabier BAÑUELOS

ARGITARATZAILEA:

Astero.
Herritar Berri SLU.
Zazpi Haizetara
aldizkariaren lan
taldeak ekoiztua.

EDITOREA:

Eguzki
Agirrezabalaga
eta Jon Benito

JATORRIZKO DISEINUA:

Grafik Sarea +
Artefakto

MAKETAZIOA:

Oiartso
Los Arcos Urbina

EGOITZA:

Portuetxe, 23 -2. A
20018 Donostia

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

bidaiari@naiz.eus

TELEFONOA:

943 31 69 99
www.naiz.eus/bidaiari

LEGE GORDAILUA:

01361-2021

INPRIMATZEN DU:

Printek
Inprimategia.
Zamudio



KULTURA ETA HEZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



14 JEONJU

Koreako etxebizitza tradizionalak dira hanok-ak, eta arkitektura herrikoia diren seinale dira. Horietaz gozatzeko hiri aproposik baldin bada, Jeonju da hori. Hango alde zaharra horrelako etxebizitzetaz beteta dago, eta oraindik Joseon dinastia nagusi balitz bezala kontserbatzen da. Gaur egun, ordea, hiriak giro alai eta interesgarria dauka. Sukaldaritza ere aipagarria da.



6 OMAN Arabiar penintsulako ekialdeko kostaldean dago, 4.527.000 biztanle ditu, eta bere lurraldearen % 80 basamortua da. Ezezagun handia da Oman.



22 BUSSACO Hotel Jauregia eta Lorategi Botaniko zabala dira Portugalgo toki honen ikurrak, biak garai kolonialen oparotasunaren erakusgarri.



44 TALAIA BIDEA Kantauri Itsasoko kostaldeko bidean, Zumaiatik Debara, mendia eta itsasoa bat dira, flysch-eko itsas labarrek erakusten dutenez.



50 **ARABAKO ERRIOXA** Mahastietan, liluratuta 60 **BERTATIK BERTARA** Urte berri on!, inauteriak, Metroan praktarik gabe, Zaryadye, sarkofagoak, Gazan suak, «acullico», Amadea gurutzaontzia... 56 **GEZURREZKO ELURRA** Elurra kanoien bidez sortzen ari dira, kalteei begiratu gabe



BIDEA ETA DENBORA

Flaneur izateko eskubidea

Nork ez dugu inoiz, topaketa batean, mendi trabesian edo orain ondo gogoratzen ez dugun herri bateko jaien ostean, zerua goian eta lurra behean geneukala lo egin?

Kanpin hura hondartza edo baso ertz batean zegoen, gure begietara eder eta segurua zirudien eremuan bederen, eta nahikoa zitzaigun atsedenezko edo plazerezko gau bat pasatzeko: ez genuen besterik nahi, ez genuen besterik behar.

Eskubide eta askatasun sinple horiek aldarrikatzen dituzte argazki honetako pertsonak: edonondik nahinora galdu, aurkitu eta ibili, izarrak sabaitzat ditugula lo egin.

Inglaterra ehunka lagunek bat egin dute Right to Roam mugimenduarekin, espazio naturalen erabilera ireki eta askea defendatzeko eta kanpatze librea eskatzeko; horrek osasun fisiko, mental eta espiritualari mesede egiten diola argudiatuta bildu ziren manifestariak Cornwood herrian, adibidez.

Bidaia ororen funtsa, azkenean, ez baita helburutzat dugun norabait heltzea, bidea baizik. Kavafisen poema hartan bezala, Itakara bidea luzea eta abenturaz eta esperientziaz betea izan dadin opa izaten dugu, abiapuntutik partitzen garenean.

Turismo esperientzia antolatu bezain arautuen sasoian, herrien benetako arimak ebatsi eta hila-beteak lehenago erreserbatzen ditugun Airbnb etxeen aroan, bidearen eta denboraren kontrola nork bere gain hartzeko aldarria egiten dute argazkiko lagunek. Ibili, gelditu, izarrei erreparatu, herriarrei diosala egin, haietariko bat izan zintzoki, egun batzuetan haien izateaz elikatu, berriz segi, beste nonbait gauaren azpian lokartu... Ba al da hori baino askatasun zintzo eta benetakoagorik?

Baudelairek bere poemetan flaneur edo paseatzaile figura aldarrikatzen zuen. Norabiderik gabe ibiltzea... den-dena produkzio eta etekin logiketan ulertzen den sasoiotan ordea, zer natur espazioen erabilera librea eta nahinon geratu eta lo egiteko eskubidea aldarrikatzea baino askatzaile, lotsagabe eta politikoagorik?

Nork ez du, topagune, mendi trabesia edo herri hartako jaietara itzuli nahi, berriz, gau batez? **ADRIAN**

DENNIS



OMAN

ezezagun hori







Arabiar penintsulako ekialdeko kostaldean dago, eta Arabiar Emirerri Batuak, Yemen eta Saudi Arabia ditu mugakide. Omanek 4.527.000 biztanle ditu, eta 309.500 km². Lurraldearen % 80 basamortua da. Erlijio nagusia islama da, eta politikoki herrialdea monarkia absolutu batek gobernatzen du.

Testua eta argazkiak: **Juan Luis MUGERTZA**

Urriaren 27an hasi zen gure bidaiaren odisea. Maskateko aireportura gauean heldu ginen, ohiko tramiteak egin genituen, eta Enterprise-ren bulegora abiatu ginen, aldezturik alokatutako autoa hartzeko asmoz. Nola ez dugula autorik? Ordainduta dago, barren! Beste konpainia batean bi eguneko beste auto bat alokatu, tarte horretan etengabe batera eta bestera deitu, ea baten batek egindako okerrera zuzentzen zuen, eta, lo gutxi eginda, hurrengo egunean Maskateko kanpoaldean dagoen eraikuntza erlijiosorik garrantzitsuen eta handiena den Sultan Qaboos meskita ikustera joan ginen. 1970etik 2020ra gobernatu zuen sultanari zor dio izena. 20.000 fededunentzako edukiera du. Otoitz gelan zortzi tonako Swarovski kristalezko lanpara erraldoia, eta munduko pieza bateko alfonbrarik handiena du.

Hurrengo geldialdea, Mutrah souk izan zen, Maskateko bazar handia. Hiriburua nor bere kabuz ezagutzea erraza bada ere, autoa beharrezkoa da, tamaina kontuan hartuta (53 km). Ekialde Hurbila eta zokoak sinonimoak dira, eta Maskaten aukera dago Omaneko zaharrenetako bat ikusteko. Dozenaka denda ikus daitezke intentsuaren kearen artean, eta zaila da gozoki batzuk edo datil batzuk erosteko tentazioari eustea.

Omango leku gehiago ikusteko asmotan, kostatik hegoaldera 203 kilometroa egin genituen, Sur-era joateko. Bidean Bimman Sinkhole-n gelditu



ginen. Harkaitzetan zizelatutako zulo handi honek 40 metro inguruko diametroa du, eta hango ura berdexka eta kristalinoa da. Ordu erdi bat uretan egin ostean, zangoen larruan arraintxoek emandako masaiaren kili-kilia gozatzen izan ginen, patxada ederrean, arroketan eserita. Beste 20 kilometro egin, eta Wadi Shab-en gelditu ginen, Omanen turista gehien erakartzen duen oasian. Ibilbidearen hasiera egiteko txalupa batean gurutzatu behar da ibaiaren beste aldera. Gero, 40-50 minutu inguru egin genituen oinez, paisaia ederrez, palmondoz eta mendi garaiz apainduta. Ibilbidean aflaj-ak ikusten dira, ureztatze ubide tradizionalak, herrialdeko lekurik urrunenetara ura eramaten dutenak. Zenbait ikerketa arkeologikoren arabera, aflaj ureztaketa sistemek 4.500 urte baino gehiago dituzte, nahiz eta aztarnarik zaharrenak VI. mendekoak izan. Oman bezalako herrialde lehor batean, aurkikuntza historikoa izan zen hau, nazioaren etorkizuna markatu zuena. Egun, aflaj-ak arriskuan daude, lurpeko uraren mailak behera egin duelako, nahiz eta komunitate askorentzat berebiziko garrantzia izaten jarraitzen duten. Haiek gabe ia ezinezkoa izango lukete ur korronterako sarbidea Omango komunitate askotan. UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu zituen asmakizun hauek.



SUR, SINBAD MARINELAREN HIRIA Sur tamaina ertaineko hiria da, 50.000 biztanle inguru ditu, eta distira handieneko uneak bere ontziolek sortutako aberastasunari zor dizkio. Izan ere, bertan eraikitzen dituzte Omango ikur diren egurrezko itsasontzi tradizionalak: dhow-ak. Surek bere garrantzia izan zuen historian Omango sultanatua Zanzibarreraino hedatu zenean. Marco Polok eta Ibn Battutak aipatzen zuten 100 dhow -en flota izatera iritsi zela. 1861ean bi lurraldeak banandu ziren, eta dhow ospetsuek egiten zuten merkataritza lausotu egin zen. Hala ere, egun, dhowen fabrikazioak tamaina txikikoa den arren, bizirik jarraitzen du, omandar aberatsenen aisialdirako zein turistak eramateko erabiltzen baitira. Horren lekukoa da kaian bertan dagoen dhow fabrika. Barrukoa ikusteko sarrera moduko bat ordaindu behar izan genuen, eta, lanbide askotan bezala, langileak indiarrek eta bangladeshtarrek ziren. Ezinbestean, aurreko egunean errepide bazterrean kafe postu batean bangladeshtar kamarero batekin izandako elkarrizketa gogoratu zitzaigun. Gaztea zen, baina bi seme-alaba zituen. Bangladesheko muturreko egoeratik alde egin nahian, Omanera etorri, bertako batekin hiru urteko kontratua sinatu, pasaporteak kendu eta egunean hamabi ordu lan egiten zuen, jai egunik gabe. “Familiarekin noiz

Turistak Bimman Sinkhole-n bainua hartzen. Ondoko argazkian, Wadi Shab-eko lorategi naturalak. Lerro hauen gainean Maskat-eko Sultan Qaboos mezkita.



Ohikoa da dromedarioak hondartzetan ikustea. Ondoan, Bi emakume nagusi merkatu egunean Nizwa-n. Umeak dotore jantzita Omango Jai Nazionalen. (azaroak 18) Kontuz gidatu behar da, dromedarioak Omango errepideetan lasai asko ibiltzen dira-eta.



bueltatuko naizen amets egiten dut egunero". Eta guk, bitartean, hurrengo eguneko dortokak ikusteko plana buruan.

RAS AL JINZ TURTLE RESERVE, OMANGO DORTOKEN PARADISUA

Gaueko zortzi eta erdietan genuen hitzordua, eta 12-15 laguneko bi talde ginen, bakoitza bere gidariarekin, dortokekiko segurtasun neurriak eta errespetua azaltzeaz arduratzen zena. Orduan sasoirik onena ez izan arren, erretinan betiko grabatuta geratzen diren eszena eder horiek ikusteko aukera izan genuen. Zazpi dortoka espezieetatik bost ikus daitezke Omanen. Hala ere, espezierik ohikoena dortoka berdea da, eta horixe da guk ikusi genuena, nahiz eta dortoka kalamua, larrua eta Ridley dortoka oliba berdeak ere aldian-aldian etortzen diren. Dirudienez, milaka dortoka heltzen dira hondartzetara, eta, normalean, gutxienez dortoka bat izaten da urteko egun guztietan Ras Al Jinzen kumatzen. Dortoka baten ugaltze prozesuak bi ordu inguru irauten du. Izan ere, hainbat zulo egiten dituzte eta arrautzak bakarrean sartzen dituzte, harrapariak nahasteko. Errunaldiek bi aste iraun dezakete, eta 200 arrautza baino gehiago jartzen dituzte, eta horietatik oso gutxik iraungo dute. Oso polita izan zen dortoka helduak eta jaioberriak egindako itxasorako tartea ikustea.

Hurrengo egunetan kostala aldetik barne aldera egin genuen, eta Omango bigarren hiri handiena, Nizwa ikusi genuen. Atsegin eta polita da, eta hiriko alde zaharrean Omango gotorlekurik zaharrenetako eta handienetako bat dago. Nizwa VI. eta VII. mendeetan Omango hiriburua eta merkataritza bide estrategikoa izan zen. Nizwako gotorlekuak gaztelu bat eta gotorleku bat konbinatzen zituen; Sultan Bin Saif Al Ya'rubi imanak eraiki zuen XVII. mendearen erdialdean, azken okupatzaile portugaldarrak Omanetik kanporatzeko. Horretarako, era guztietako trikimailuak eta tranpak erabili zituzten. Bitxienetakoa zen etsaiei eskailerak igo ahala olioak irakiten botatzeko tranpa-ateen sistema. Gotorlekuaren eraikuntza bukatzeko hamabi urte behar izan zituzten. Antzinako Omango arkitektura du, eta forma zirkularrengatik da berezia.

Omanek, gotorlekuak ez ezik, gazteluak ere baditu, eta ederrenetakoa Jabrin-ek (Jabreen) du izena. Bahla hiriaren hegoaldean dago, Nizwatik ordu erdira, eta Omango garaiena da. Sultanak hantxe bizi ziren, eta 1675ean eraiki zuten. Bost solairu, 55 gela eta terraza erraldoi bat ditu, inguruko palmondoak eta Bahla hiriaren ikuspegi bikainak izateko. Ikasketak zentro garrantzitsua zen Jabrin, hala nola astrologia edo medikuntza bezalako gaietarako, eta hango geletan ibiliz gero, zenbait mende atzera bidaiatu izan bazenu bezala sentituko zara. Bertatik, Omango gailurrik garaiena eta Al Hajar mendilerroaren parte den Jabal Shams (3.028 m.) mendia ikusten da. Mendi hauetara joateko bidea hegoaldetik Al Khitaym herri txikian hasten da, baina hara autoz hurbiltzeko bidearen azken zatia asfaltatu gabeko pista bat da, harritsua eta nahiko aldapatsua. Beraz, noranahikoa derrigorrezkoa da, edo bertako baten batekin joatea. Bidearen hasieran Poliziaren kontrolak egon ohi dira, 4x4 autoak bakarrik pasatzen uzteko. Han oso ezaguna da Jebel Shams-eko Balcony Trail izeneko trekkinga. Ibilbidea ez da zaila: desnibel handirik gabea (300 metro), eta 3-4 ordukoa. Hori bai, bertigoia izatea normala da puntu batzuetan.

**Omanen oraindik
bizimodu eta
ohitura
tradizionalak
izaten dituzten
komunitate
beduino txikiak
daude, Wahiba
Sandas
basamortuan
bezalako lekuetan.**

JEONJU

hanok etxeen hiria







**Sarrerako orrialde
bikoitza, Pungam-mun,
harresi zaharraren
hegoaldeko sarrera.
Lerro hauen ondoan,
Hanok Maeulen teilatu
uhinduzko paisaia eta
gazte bat hanbok jantzi
klasikorekin.**




Koreako etxebizitza tradizionalak dira hanok-ak. Herri arkitekturaren xarmaz gordetzen dira oraindik herrialde osoan. Baina horietaz gozatzeko hiri aproposik baldin bada, Jeonju da hori. Bere alde zahar osoa horrelako etxebizitzez beteta dago, eta oraindik Joseon dinastia nagusi balitz bezala kontserbatzen da, baina modernitatearen makilatxo magikoak ukiturik, giro original eta alaia sortzen duela, gastronomia gozobaten zaporeen eta hanok koloretsuen artean.

Testua eta argazkiak: **Xabier BAÑUELOS**

Kyo-dong menderatzen duen muinotik ur griseko aintzira bitxi bat ikusten da. Gainazala kraskatuta dauka. Antzinatik datorren haize leun batek jotzen du, denboran pausaturik geratu diren olatu txikiak eginez. Teila ilunen tankerako olatuak dira, paisaia kulunkari bat osatzen dutenak, gandor lotsatiez eta zuhaitzen adaburuek sortutako irlatxo berdez. Gora eta behera ia estatiko honek, bihurtuz eta pikoz, kontrastea egiten du hiri modernoak urruntasunean definitzen duen skyline hautsiarekin.

Gure giblean dago Omokdae, estilo korear klasikoko pabiloi ederra. Han, 1380. urtean, Joseon dinastiaren sortzaileak (Yi Seong-gye) japoniar inbadi-tzailearen aurkako garaipenaren oturuntza ospatu zuen. Atzean utzi dugu, eta gure oinetan dagoen auzora begira gaude. «Hanok Maeul da (Hanoken herria)», esan digu bertoko batek ingeles iheskor batez. «Duela 50 urte Koreara etorri izan bazina, milioi bat hanok baino gehiago ikusiko zenituen. Gaur egun gutxi geratzen dira, agian ez dira hamar milara iristen, baina hementxe ditugu ederrenak».





**Ezkerretik eskuinera,
Gyeonggijeon
santutegia, atzealdean
Jeongdon eliza
katolikoa, Omokdae eta
Imokdae lorategiak,
hanok zahar baten
fatxada eta Taejo-ro
kaleko kafetegi baten
barrualdea. Behean,
dragoi babeslea, Nambu
azoka, Cheong Yeonlu
pabiloia Namcheongyo
zubiaren gainean, eta
animazioa Eunhaeng-
go kalean.**

Jeonjuk, Seulgo Bukchon auzoarekin batera, herrialdeko arkitektura tradizionalaren multzorik bikainena biltzen du sabai azpian

Ez da harritzekoa Hego Korean jendea hitz egitera hurbiltzea. Jatortasun era bat da, ohikoa asiarren artean, zureganako jakin-minez eta ingelesez apur bat lardaskatzeko gogoz. Bat-bateko gure lagunak halako aldarri mingots bat gehitzen dio horri, eta aldi berean tokiko harrotasun bat ere bai, beren kultur ondareko ikur diren hanok hauek gordetzeko gai izan zirelako. Izan ere, Jeonjuk, Seulgo Bukchon auzoarekin batera, herrialdeko arkitektura tradizionalik bikainena biltzen du.

Baina Bukchon ez bezala, hiriburuko zurrumbiloan murgilduta baitago, Hanok Maeul da Jeonjuren bihotza edo parte zaharra, Europako hiriekin antzekotasun bat bilatzearen. Hor 800 hanok baino gehiago daude. Trinkoa da alderdia, bere baitan bildua, goiztiarra, oso zaindua, baita mimatua ere, te etxeekin, opari dendeekin, jatetxeekin eta kaleko janari postuekin, artisautza dendeekin, era guztietako saltokiekin. Hau guztia ongi zainduta ondare multzo baten barruan dagoenez, aire zabaleko ia museo bihurtzen dute: klasizismoarekiko zaletasuna erakusten du, neurri batean turismora bideratua.

HANOK ETA KOLOREA Yi Seong-gye-ren arbaso Mokjo Lee An-sa-ren egoitza izandako Imokdae monumentutik igaro ondoren, muinotik jaitsi eta Jaman auzoko hormak apaintzen dituzten irudi bilduma atseginak begiratu ditugu. Jeonju Hyanggyoren tenplu, eskola eta egoitzako konplexu konfuzianistara iritsi gara, XV. mendean eraikia. Ondoren, Jeonjuchung ibaiaren ertzetik Namcheongyo zubiraino joan gara, eta honen galeria polit estaliak, Cheong Yeonlu izenekoak, itzalezko eta freskurazko arnasa eman digu, arkitektura herrikoia munduan murgildu aurretik.

Koreako etxe tradizionala da hanok bat, Kristo aurreko 57. urtean sortu zen hiri batekoa, Hiru Erreinuen garaikoa; eta, beraz, irudituko zaizu antzina-koak direla etxebizitza horien sustraiak. Eta halaxe da. Baina XIV. mendean, Joseon dinastiaren hastapenetan, gaur egun arte ia aldatu ez den diseinua eta formak hartu zituen. Bere estiloa naturarekin batera dantzatzeko da, baesanimsu printzipioei jarraiki (literalki: “mendia atzean duela eta ibaia aurrealdean”); haizeak aprobetxatzeko eta ura erraz eskuratzeko modu bat da. Sofistikaziorik gabeko etxebizitzak dira, material xumeekin eginak, hala nola buztinarekin, hwangto lurrarekin, zurarekin eta hanji paperarekin. Barruko espazioak irekiak dira, ez oso handiak, altzari gutxi-koak, oherik eta aulkirik gabeak, lurrean bizitza egiteko pentsatuak, zoruan esertzeko eta yo baten gainean lo egiteko (tapaki bat baino apur bat lodia goa den koltxoia, ibul edo ohe-zapiz estalia. Eta pyogae bat bururako, gari-orskolez betea. Eta hori bai, azpitik ondol edo gudeul bidez berotutako zorua, berogailu sistema baten antzekoa. Familia xumeentzat eraikin bakarra zen hanok-a. Aberatsenak multzo bat osatzen zuten, emakume eta haurrentzat (anchae), gizonentzat (saranchae), gonbidatu eta zerbitzari-entzat, eta gainera patio bat eta, are gehiago, arbasoak ohoratze-tenplu bat, dena harresi batez inguratua.

Eunhaeng-go bide nagusitik sartu gara, Gangam kaligrafia museoa dagoen tokitik. Bere trazadura zuzena sigi-sagazko erreka batekin hausten da, non haurrak nahi bezala plisti-plasta aritzen diren. Hanok alboetan dauden kaleen artean ibili gara, diorama bizidun moduko bat bihurtua. Teilatu

hegal makurrez osatuta daude etxe baxuak, giwa teilez, Korea osoa estaltzen duen teila grisez estalirik, eta espazio nabar baina atsegina marrastzen dute. Giroa oso bizia da, zalapartatsua beti, baina alaia, modu tradizionalen janzteko ohiturarekin jendea. Gisa horretan, gizonen eta emakumeen airea argizatzen dute beren hanboekin (Koreako jantzi klasikoak), inguru osoa kolorez zipriztinduz. Kolore horiek antzinako sinbolismoa galdu badute ere, ostadar zorionekoa dira, gure telefono mugikorren kameraren aurrean keinuak egiten eta irribarreak erakusten.

HANKOK ETXEEZ HARAINDI Jeonju milioi bat biztanle inguruko hiria da, eta Jeollabuk-Do probintziako hiriburua izan arren, aldiari behingo bisitariarentzat interesgarria Hanok Maeul da. Honen inguruetan toki interesgarri mordoak aurkituko dugu. Jeongdon katedral katolikoa nabarmentzen da, neoromaniko eta neobizantiar kutsuko eliza, 1908 eta 1919 urteen artean eraikia, Yun Ji-chung, Koreako lehen martiri katolikoa, 1791n hil zen lekuan. Bigarren erreferentzia Gyeonggijeon da, 1410ean eraiki eta 1614an birmoldatu zuten santutegia. Areto Handian Yi Seong-gye-ren erretratua dago, Taejo erregea izenez ezagunagoa.

Handik ez oso urruti, Pungam-mun, hegoaldeko atea aurkitu dugu, hiriko harrisi zaharretik bizirik iraun duen lekuko bakarra. Japoniarren 1597ko bigarren inbasioaren ondoren suntsitua izan zen, eta 1734an berriro altxatu zuten. Pasatzen jarraitzen badugu, tradiziozko oihartzunekin topo egingo dugu berriro Hanji Institutuan, han oraindik eskuz egiten baitira dak (masustondo zuria) azaletik abiatuta egindako paper porotsu bereziak. Edo Ardoaren Museoa ikusiko dugu, non ez dagoen ardorik, baizik eta soju izeneko arroz likore bat, gosari izeneko alantxiki potolo batean destilatutako edari bat, azukre ukitu batzuekin, edalontziari vodka zapora apur bat goxoa emanez.

Egunerokora itzultzeko, nahikoa da ibai ondoko Nambu azokara iristea; hiri osoko jendea joaten da bertara, produktu freskoen, espezien eta saltsetarako prestakinen zapora eta usain bila. Ez dugu ahaztu behar hanok- en ondoren, Jeonjuren bigarren erakargarritasuna bere gastronomia original eta bikaina dela. 2012an, Unescok Hiri Gastronomiko Sortzaile izendatu zuen, eta sukaldari talentudunen ugaritasuna saritu zituen. Plater nagusia bibimbap edo arroz nahasketa da, Korea osoan ohikoa dena baina hemen berezko espezialitate maila hartzen duena arrozarekin eta namul- arekin (landare salteatuak eta onduak) egindako osagaien konbinazioaren- gatik, nonahiko kimchia (aza-hartxidura mina), arrautza eta haragia, hori guztia kongnamul-gukbap (soja kimuen salda) eta sesamo olioarekin eta gochujang-arekin batera (piper gorriko saltsa mina).

Hiri modernora irteten bagara, xarma handirik gabeko hiri arrunta aurkituko dugu. Baina oraindik perla txikiak ikusiko ditugu, hala nola Pungpae-jigwan, Goryeo eta Joseon garaiko bisitarienezako ostatu bat, gaeska izeneko, harrera eta oturuntza gela ere egiten zuena. Eraikinak auzo osoari eman dio izena, Jeonju Gaeska, gaur egun hiriko merkataritza-gune jendetsuenetako bat dena. Deokjin parkea ere oso ezaguna da, nenufaren urmael erromantiko eta aberasgarriekin. Tradizioarekiko gustua izanez gero, Jeonjuko Museo Nazional interesgarrian sar zaitezke, folkloreakin eta antropologiarekin topo egiteko, arkeologiaren eta artearen eskutik.

GIDA PRAKTIKOA

ZENBAT DENBORA BEHAR DA

Tamaina ertaineko hiria den arren, interesgarria, esan bezala, Hanok Maeul inguruan biltzen da. Bi egun nahikoa izaten dira.

GASTRONOMIA

Jeonjun bibimbap probatu behar da, noski; baina benetan dena probatu behar da. Eta ez bakarrik jatetxeetan, baita kaleko postuetan ere. Ez da gomendiorik behar, toki asko daude eta kalitatea ona izaten da.

LO EGITEKO

Hanok asko dago herrialde osoan, batez ere Jeonju-n. Esperientzia oso gomendagarria da. Baina abisatzen dugu: ez dago oherik. Hanok bat ez da deserosoa, baina futoi baten gainean lo egin beharra dago. Yo baten gainean lo egitea zuzenean lurrean lo egitea bezalakoa da mendealdeko gorputz nagibatentzat.

JAIALDIAK

Jeonju ezaguna da jaialdiengatik. Bi garrantzitsuenak dira: Sori-ko Nazioarteko Jaialdia, Koreako musika tradizionalaren topaketa handiena, eta Nazioarteko Zinemaldia.

BUSSACO

Beste mundu bateko lorea

Testua **Juanma COSTOYA** Argazkiak **J.C eta Getty**

**Bussacoko Hotel Jauregia eta inguruan
duen Lorategi Botaniko zabala beste
mundu bateko loreak dira. Biak ala biak,
Portugalek mundu zabal hori
esploratzen zuen garai bateko floraren
eta harriaren testigantza poetikoa.**










Kanela, iltze, kafe eta kakao zaporea zuen garai horretakoa da bere lorategian landatutako zuhaitzik agurgarriena: San Jose izenez bataiatutako zedro bat da, babes hesia eta azalpen plaka izateko eskubidea irabazi duena, 1644an Mexikoko monje karmeldar batek ekarria. Zuhaitz ezagun gehiago daude. Oraindik gordetzen da Wellingtongo dukeak 1810eko irailaren 21etik 27ra bitartean bere zaldia lotu zuen olibondoa. Jenerala Napoleonen tropen aurka borrokatzen zen britainiar koalizioaren buru zen.

Ameriketatik *Cupressus lusitanica* ale ikusgarria iritsi baino pare bat urte lehenagokoa da lorategiaren sorrera. Garai hartan, gertu zegoen Coimbrako gotzainak muinoko lurak monasterioari eman zizkion, eta hauek



lorategi botaniko bat diseinatzen hasi ziren. Lorategia Goa, Timor, Afrika eta Brasilgo portugaldar domeinuetako itsasoz haraindiko ekarpenekin aberastuz joan zena.

XVII. mendean, Lorategi Botanikoak ospea hartu zuen Mendebaldean, bertako espezieen dibertsitate eta balioagatik. Urbano VIII. aita santuaren bulda miresmen horren lekuko da. Beste bulda batek, oraingoan Gregorio XV.arena, emakumeen sarrera gaitzesten zuen.

Salbuespenik gabeko araurik eta barkamenik gabeko bekaturik ez dagoe-nez, Katalinak, Ingalaterrako Karlos II.a erregearen alargunak, lorategi ospetsua bisitatu nahi izan zuenean, monjeek kontraesana ebatzi zuten, inguratzen zuten harresietan ate berri bat irekiz. Sarbideari Erreginarenean Atea esaten diote ordutik, eta Lorategi Botanikoa inguratzen duen harrizko horma garaia zeharkatzen duten hamaika sarreretako bat da. Urbano aita santuak, bere aldetik, bere buldaren autoritate morala xahutu zuen, kontzientzia ekologista zuen lehen eliz agintaritzaz bezala koroatzera eraman zezakeena, Galileo Galilei heretiko izateagatik kondenatuz. Aita santuaren hutsezintasuna kinkan jartzen duen erabakia. Gaur egun, bi buldak gogorazten dituzten plakak lorategirako beste sarrera monumental batean txertatuta daude: Coimbrako Atean, inguruko lautadaren gaineko ikuspegi bikainekin.

LUXUZKO HOTELA 1888an, Braganzako errege-etxeak, Portugal eta Brasilgo subiranoak, errege-jauregi bat eraikitzea erabaki zuen Bussacon. Lan horretarako, Luigi Manini arkitekto italiarra kontratatu zuen. Inspirazioa Portugalgo beste eraikin ikoniko batzuen eskutik iritsi zitzaion Maniniri, hala nola Belemgo Dorrea edo Lisboako Jeronimoen Monasterioa. Portugalgo ordena erlijiosoaren kanporatzearekin (1834) eta Errepublikaren etorrerarekin (1910) eraikin monumentalak, manuelino bezala ezagutzen den apaindura estilo kargatu horretan eraikia, luxuzko hotel bihurtu zen.

Barruko patioak, korridoreak eta galeriak Portugalgo lauza beiratzatuarekin apaindu ziren, kolore zuri-urdinekin. Lauza horietan, itsasoz haraindiko balentriak, aurkikuntzak, penintsulako batailak edo Luis de Camoensen loria literarioa irudikatu ziren. Azkenean, Sabai altuek, harrizko eskailera handiek eta beirate koloreztatu eta beruneztatuek Lehen Mundu Gerran eta gerren arteko garaian bolada onenetakoa bizi izan zuen hotelari maila eman zioten. Portugalgo ohiko neutraltasunari esker, Hotel Jauregian gudan zeuden herrialdeetako ordezkariak bildu ziren, lubakietako sarrasketatik aparte, jantokiko eta dantzalekuko diamantezko armiarren azpian.

Gaur egun giro horren isla ikus daiteke, etiketa zorrotzeko zerbitzarietan, adibidez. Zerbitzariak ardo-karta bat ematen diote mahaikideari, eta lehen orrialdean botila batzuen prezioa ez da bostehun eurotik jaisten. Hala ere, garaiak aldatu egin dira, zalantzarik gabe. Orain, bezero askok jakaren, marra diplomatikoaren eta gorbataren ordezkariak bermudak eta txankletak janzten dituzte. Era berean, bisitari askok, Portugalgo ardo zaporetzuen ordezkariak edo kola freskagarriak eskatzen dituzte.



Portugalaren saudadea ez da nostalgia hutsa. Poesian eta fadoetan oso present aurkituagatik, definizioa ez da erraza, sentimenduen nahasketa bat deskribatzen baitu; galera, falta eta maitasuna barne hartzen dituelarik. Argazkietan erakusten den Bussacoko paisaia honek ere, beste aldi baten handitasuna nabarmena du.

**Lorategi
botanikoak jasan
duen mehatxurik
larriena Gong
zikloia izan zen.
2013ko urtarrilaren
19an, zikloi horrek
azpiegiturak
kaltetu eta ehunka
zuhaitz bota zituen.**



Lekuaren handitasuna ez dago, ordea, endekapenaren seinaleetatik erabat libre. Ateak ixteko arazoak dituzten garaiz kanpoko altzariak, marmolez eta sabai altu-altuz estalitako gela izoztuak berotzeko gai ez diren erradiadore elektrikoek, edo, Interneten estaldura eskaxak (harrigarriro, harrerara mugatzen den zerbitzua) gainbehera horren adibide izan daitezke.

Zalantzarik gabe, iraganeko dotorezia gogora ekartzeko une egokia gosaria da. Jangela nagusian zerbitzatzen da, xanpain frantsesezko botila izoztuak eta lore freskoak barne. Bisitariak agertoki honetan Alexander Alekhine munduko xake txapelduna imajinatu dezake, eskuekin bere gosari gogokoena irensten: arrautza frijituak vermu txorrotada eder batekin nahastuta. Alekhinen kondairak eta establezimenduarenak berak asko irabaziko zuketena baldin eta aristokrata errusiarra bere geletako batean hil izan baltitz, Estorilgo pentsio batean mozkortuta eta itota hil beharrean.

Penintsulako bisitariak alde batera utzita, bisitari kopuru handi bat Israeldik dator. Lorategi Botanikoa, bere hogeita bi urratsekin, Jerusalemgo gurutze-bidearen erreproduktzioa omen da eta horrek azalduko luke israeldarren etorria.

GONG ZIKLOIA Monjeen kanporaketa, monarkia gainbehera eta jauregia hotel bihurtzea bizi ondoren, Lorategi Botanikoak jasan duen mehatxurik larriena Gong zikloia izan zen. 2013ko urtarrilaren 19an, zikloi horrek azpiegiturak kaltetu eta ehunka zuhaitz bota zituen.

Lorzainen etxeak, hazitegiak eta gurutze-bideko kapera txikiak oso kaltetuta geratu ziren. Ondorioz, Kristoren pasioa eta heriotza irudikatzen zuten irudiak, garai hartan gurutze-bidearen pasabide ezberdinetan banatzen zirenak, kaperetako batean daude gordeta orain. Gordeleku horretan sortzen den promiskuitate arraroak, hanka edo beso bat falta zaien ikasleak zenturioien ondoan kokatzen dituen anabasak, Unescori hotel jauregia eta lorategia Gizadiaren Ondareen zerrendan sartzeko egindako eskaera luzatuko dela ematen du adieraztera.

Landaketa eta osaketa prozesuak mantso doaz. Ehun hektareatan berrehun eta berrogeita hamar espezie baino gehiago daude landatuta. Muinoaren punturik goreneraino igotzea guztiz gomendagarria da, bertatik hotelaren eta inguruko baso txikiaren ikuspegiak miresteke. Bertako bideak, hostoz eta goroldioz estalita dauden harrizko iturri ikusgarriez eta granitozko eskailerez josita daude.

Tokiak nolabaiteko utzikeria erakusten du. Bere gainbehera malenkonia-tsua zinematografikoa baino literarioagoa da, nahiz eta Hotel Jauregia eta bere lorategiak telesail, iragarki eta film askoren eszenatoki izan diren, eta izaten jarraitzen duten. Ameslariak Thomas Mannen "Der Tod in Venedig" ("Heriotza Venezian") edo Mujica Lainezen "Bomarzo" liburuen atmosfera zatiak identifikatuko dituzte. Ez dago Fernando Pessoa Bussacora egindako bisitarik, baina bere heteronimorik ospetsuenetako batek, Ricardo Reis latinista monarkikoak, Brasilgo erbestean bere «saudade» ilustratua-rekin jolasteko Bussaco eta bere Lorategi Botanikoa gogora ekartzea ez dirudi zoramena.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Bussaco Hotel Jauregia eta bere Lorategi Botanikoa Mealhada udalerrian daude, Portugal erdialdean, Lisboatik 240 kilometrora eta Coimbratik 30 kilometrora.

OSTATU HARTU

Logelak eskuragarri daude 110 eurotik aurrera.

IBILBIDEAK

Lorategi Botanikoaren barruan oinezkoentzako ibilbideak daude, 3,5 eta 4 kilometro bitartekoak. Ez dute zailtasunik.

SARRERA

Ostaturik ez bada hartzen, 5 euro ordaindu behar da autoa hotelera sartzeko.



Eneko Redondo Ikazuriaga

bizikletan libre zeruertzerantz

Eneko Redondok ibilbide luzeak egin izan ditu bizikletaz Patagonian zehar (Txile eta Argentina). Asiako hiru mendialde handi ere lotu ditu, Pamir Highway, Karakorum Highway eta Indiako Himalaia mendietan ibilita; eta, azkenik, Japoniako Fujin ere bai. Orain Hego Amerikara doa “Morrosko” bizikletarekin, bueltako txartelik eta eperik gabe.

Eneko Redondo 1972an jaio zen Gernika-Lumon; 50 urte ditu, beraz. Diseinatzaile industrialia da jaioterriko enpresa kooperatibo batean. Kirola bere bizitzaren parte da; urte asko daramatza haitz eskaladan eta txirrindularitzan.

Bidaia gehienak bakarka egiten ditu, bizikleta-ekin edo motxilarekin. Lehenengo pedalkadak Donejakue bidean egin zituen, baita Euskal Herriko eta Iberiar penintsulako ibilbideetan barrera ere. Arhuaco-ekin bizi izan zen Kolonbian, Alpeetan eskalatu du, Marokon ezkontza batera joan zen, Patagonia bizikletaz zeharkatu zuen, Kuban zaharberritutako bizikletak oparitu zituen, pigmeoekin egon da Kamerunen, Beninen erritu buduak ikusi ditu, bizikletan mugitu da Asiako hego-ekialdean, Kolonbian, Perun, Iranen eta Afrikako zenbait herrialdetan. Gainera, 2015ean, sei hilabetez, Tajikistanera, Kirgizistanera, Txinara, Pakistanera eta Indiara joan zen. Hegazkinez Japoniara iritsi zen, eta han pedalei eragin zien, 21 urtez munduan barrera bizikletaz ibilitako Lorenzo Rojo “Txentxo” gasteiztarrekin.

Testua
Roge BLASCO
Argazkiak
Eneko REDONDO
IKAZURIAGA

2020an, pandemia betean, Sevillatik Gernikara joan zen, eta hurrengo urtean Cadizetik abiatu zen, Portugal zeharkatuz, etxera itzultzeko.

2022ko udazkeneko aste batzuk igaro zituen Cuencan eta Teruelen. Horri esker, Cartagena de Indias hirian (Kolonbia) hasiko duen proiektu berriari ekiteko prestaketak egin ditu.

Asko pentsatu duzu Ameriketara bidaia- tzeaz, noiz itzuliko zaren jakin gabe?

Aspaldi neukan plan bat da, baina pandemiarekin itxarotea tokatzen zen. Azken zeharkaldien arrazoa ere horrek baldintzatu zuen, errazagoa baitzen ibilbide errazak egitea. Oso interesgarria izan da Espainiako eta Portugalgo leku batzuk ezagutzea, ahaztuta dagoen toki handia baita, bizikletaz gurutzatzeko herrialde ona baita, jende oso atsegina eta errepide lasaiak dituen. Aurkuntza bat izan da. Lehenago egindako beste edozein bidaiekin alderatuz, ez da gutxiago izan.

Bigarren mailako errepideetatik joatea gus- tatzen zaizu, erabiltzen ez direnetatik ere bai.

Bai, lurrezko pistetatik eta auzo bideetatik. Hainbat arrazoiengatik egiten dut: trafikoari beldurrik izan gabe erlaxatuta joatea gustatzen zait, atseginagoa da, eta, bestalde, naturarekin eta bertako pertsonekin lotura handiagoa lortzen da. Haiekin hitz egiten duzu eta lurraldeari buruzko informazio fidagarriagoa ematen ditzute.

Nola joan da Teruelgo Mendi Hutsen ibilbidea?

Pena da, herriak biztanlerik gabe geratzen dira. Egia da bakardade sentipena ere gustatzen zai-



Goiko bi argazkietan, Moriri lakura bidean, 4.522 metrora, Ladakh-en (India), eta Pamir mendikatea.

dala, leku basatietan barrena joatea, horixe baita benetan deitzen didana. Gozatu egin dut mendietan eta lehorreko pistetan zehar ibiltzen, baina ez nuen beste elkarriketarik behar bertakoekin.

Zein izan dira Cuenca eta Teruel ibilbideko lekurik atseginenak?

Alto Tajoko Parke Nazionala, Cuencako iparraldean eta Soriako hegoaldean. Erabateko bakardadean, udazkeneko koloreekin eta faunaz inguratuta. Zehazki, Tajo ibaiaren eta Cuervo ibaiaren sorrera gustatu zait, biak Cuencako mendi zerran.



Lur planetako biztanle bakarra bazina bezala?

Animalia ugari ikusten dituzu, baina pertsonentzat mugatutako alderdi bat bezalakoa da, ez baitago lotura onik, ez dago asfaltatutako errepiderik herrien artean, eta horrek bakardadea eragiten dizu.

Nola moldatzen zara zeure kabuz? GPSa ermaten duzu, kanpin denda daukazu, su txiki bat erabiltzen duzu janaria egiteko?

Ezeren eta inoren mende ez egotea gustatzen zait. Jende oso gutxi bizi den inguruak modu autonomoan ezagutzeak erakartzen nau. Azkenean, esperientzia urteak dira, eta aldiro bidaiatzeko

*Bakardade sentipena
gustatzen zait, leku
basatietan barrena joatea,
horixe da benetan deitzen
didana.*



Hurrengo argazkietan, Barachala Pass, 4850 metrora, Zanskar mendikatean (India). Ondoren, atsedena hartzen Irango basamortuan eta Pamir mendikatea txirrindularekin zeharkatzen. Azkena, Batura-Hunza glaziarra, Pakistanen.

eta lekuak ezagutzeko modu bat antolatzen joaten zara. Zoazen lekuari hobekien egokitzen zaion ekipamendua aukeratzen duzu; adibidez, ur iragazki mota. Azken bidaian, Tajo ibaiko putzu batetik edan behar izan nuen, eta iragazki egokiari esker ez nintzen intoxicatu.

Gernikatik Cuencara, eta handik Teruelera eta buelta; horrek Amerika bizikletaz proiektua prestatzeko balio izan dizu?

Nire ondoan daukat "Morrosko", horrela deitu diot nire bizikleta berriari, sendoa eta indartsua delako. Oso ondo etorri zait probatzea. Gauza batzuek funtzionatu dute eta beste batzuek aldatu egin ditut. Ideia bat egin dut pisua kalkulatzeko eta materiala probatzeko, hala nola ur-iragazkia, su txikia. Ibilbide kontinental bati ekin aurretik materiala testatzeko modu egokia izan da.

Ibilbide oso luzeak egin izan dituzu, hala nola Zetaren Bidea, Tajikistanetik Indiara. Eta handik Japoniara jauzia egin zenuen. Zergatik igo zinen hain mendi garaietara?

Mendien deia da. Ziklo-bidaia batentzat erakargarri bihurtzen da "Pamir" hitza entzutea. Batzuek eta besteek elkar xaxatu genuen helmuga hauek aholkatuz, eta Pamir nire ametsen artean zegoen. Gero hasten zara zerbait handiagoan pentsatzen: «Agian jarrai dezaket Karakorumetik barrera, eta ondoren Himalaia. Elezaharretako hiru helmuga lotzea bezala izan zen, hori da ideia.

Hilabete gogorak izan ziren, 3.000 metrotik jaitsi gabe. Baina merezi zuen Zetaren Bidean mendiak eta milaka urteko historia lotzen ibiltzea. Niretzat hori altxor handi bat da, ideia eder bat. Beste pertsona batentzat azken urteko automobil bat izan liteke. Horrelako esperientziak bizi izanak liluratzen nau. Zetaren Bidea amets bat bizitzea bezalakoa izan da.

Zein izan ziren Asiako zure bidaiaren une gorenak?

Egunkarian idatzi nuen buruz buru naturaren eta nire arteko elkarbizitza zela. Batzuetan liskarrean aritzen ginen eta beste batzuetan adiskidetu egiten ginen. Dena exajeratuta zegoen: ona oso ona zen, eta txarra, oso txarra. Emozioak muturrekoak ziren, negar eta barre egiten nuen mendien handitasun haren aurrean. Urruneko tokiak dira, zibilizaziotik urrun daudenak, non

haizeak, tenperaturak, altitudeak etengabeko erronka ziren. Gizakiok barruan daramagun animalia sena piztu zitzaidan.

Kolonbiarantz hegan egiteko puntuan zaude. Hego Amerikako beste herrialde batzuk ezagutzen dituzu.

Txilen eta Argentinan pare bat bider egon naiz. Bizikletaz egin nuen Errepide Australa Ushuaia-raino. Ezagutzen dut Peru; han trekkingak egin nituen. Brasil hegoaldea eta Kolonbia ere bai. Orain Bolivian denboraldi bat igaro nahi nuke.

Herrialde bat bisitatu arren, beti daude ezagutzeko eta harritzeko lekuak. Bidaia honetan, denbora eperik gabe bidaiatzeak eskaintzen duen askatasuna lortu nahi dut. Lan egiten dugunontzat ez da erraza alde egitea, eta horregatik gehiago baloratzen dut erabaki hau.

Orain Kolonbian hasiko naiz eta ea non amaitzen dudan! Zorionekoa naiz askatasun hori dudalako.

Lekuak, pertsonak, esperientziak bilatzen ditut, neure buruarekin topo egitea, beste batzuetan bidaia luzeetan egin dudan bezala. Gogoak dut betetasuna eta basakeria berriro sentitzeko. Denbora luzerako noa, bidea markatuko didan senari jarraiki. Zerumuga libre eduki nahi dut.

Ez duzu kalkulatu noraino eraman zaitzakeen bide horrek?

Ez, niretzat ez du zentzurik plan handiak egiteak, puntu bat edo beste markatzeak. Bizitza ziurtasunik gabea da, maiz ez duzu jakiten zer gertatuko den. Uste dut hobe dela pixkanaka joatea, une bakoitzean gozatzea eta bideak proposatzen duena onartzea.

Eneko Redondo 2023ko urtarrilaren 2an hegazkinez joan zen Cartagena de Indiasera. Oraingo oso ondo doakio. Bere lagun arhuaco-ekin egon da Santa Martako Nevada mendilerroan. Mezu hau bidali zidan, audioz: "Errepidetik irten naiz Kolonbiako mendietan sartzeko. Landa lurretan jendea oso jatorra da. Malda igarogaitzak eta muino ikaragarriak gainditu behar izan ditut, 38 graduko hozberoa zelarrik. Gorputzak erantzuten du eta gogoak ere bai. Laster abiatuko naiz Bucaramangara.



MO'OREA

Tahititik gertu, baina erabat desberdin

Testua eta argazkiak: Urtzi URRUTIKOETXEA

Frantziaren mendeko Polinesiako beste uharteetara joaterik ez izan arren, ezta Tahititik hurbilen dauden Sozietate artxipelagoko gainerako irletara ere, Mo'oreak derrigor egon behar du munduko txoko honetaraino etorri den bidaiariaren bisita zerrendan. Papeete hiriburuaren parez pare dago, elkarri begira baleude legez, eta ferry bidez lotuta daude Tahiti eta Mo'orea.







Tahiti parean kokatua, Mooreak bihotz itxura dauka. 60 kilometroko perimetroko irlalara iristearekin bat gailentzen da herrixka giroa. Baita ozeanoko urdin turkesa ere, palmondoen berde biziarekin kontrastean.

Norbaitek pentsa lezake Tahiti uharte nagusiaren aldamenean egotea kalterako zaiola Mo'oreari, ez duela Sozietate artxipelagoko gainerako irlen edertasuna edo nortasuna edo beste zerbait. Bai, egia da, Papeete hiriburuarekin ferry-lotura izateak nabarmen errazten du bisita. Eta "Magic Island" (uharte magiko) bezalako deitura turistikoak, erakargarri izateko asmoz diseinatuta egon arren, aurkako efektua izan dezake. Baina nekez aurkituko ditugu elkarrengandik bereiziago diruditen bi mundu. Portuan bertan geratzen da atzean Papeete-ko hiri sentipena, eta Mo'oreara iristearekin bat gailentzen da herrixka giroa eta atoloiaren edertasuna, mendi kolosala, arrezifearen hurbiltasuna eta polinesiar bizimodu lasaia.

Gainerako uharteetara egindako bisitaren amaieran iritsi gara Mo'oreara, eta geuk ere badakargu errezelo hori hegazkin txikian: ez ote den orain arteko txokoen xarmarik gabeko leku turistikoa izango. Ezin okerrago, egon, zorionez. Aparatua hurbildu ahala ageri da urdin turkesa airetik, arrezifeak itsaso sakon eta ilunagoetatik bereizten. Lehorrean, palmondoak, berde



Frantsearen presio handiaren menpe baina bizirik dagoen polinesiar kultura bertatik bertara ezagutzeko aukera ederra da irla

bizia, joan-etorriko bide estuak, eliza dotoreak eta oilarra, herriko irteeran. Bora Bora ederra izan da, ezin uka, baina edertasun horri Mo'oreak uharte handiagoa izatea gehitzen dio eta, konparazioan, merkeagoa ere bai (edo ez hain garestia, gutxienez).

Bihotz-itxura dauka 60 kilometroko perimetroa duen irlak. Cook eta Opu-nohu iparraldeko bi badia sakonek ematen diote itxura hori; biak batzen diren gunean, gainera, oihana eta sumendia hasten dira, irlaren barneal-derako abiapuntua baita punta zorrotzeko Rotui mendiraino.. Ederra baino ederragoa da ibilbidea, Opunohu badiaren ertzean goazela batez ere, bihurgune bakoitzak liluratzen gaitu. Kosta-lerrotik hurbil beti, fruta eta barazkien postuak ageri dira han-hemenka, baita kokoak eta harrapatu berri diren arrain freskoak ere.

HIZKUNTZA ETA NATURA Bi badiak atzean utzita daukagu lehen geltokia. Arrezifera begira dagoen eraikin xume eta zabal batekin, leihorik gabe itsas-brisaz gozatzen, Puna Reo Piha'e'ina dago. Aotearoa edo Zeelanda Berriko esperientziak ezagututa, Polinesiako beste mutur honetaraino ekarri zuten tahitierazko (reo tahiti) irakaskuntza eta eskola-ostean aisialdirako espe-rientziak antolatzeke gunea. Duela hilabete gutxi tahitiera-frantseseko es-kola elebidunak zabaldu dituzte.



Izan ere, itsasoa eta oihana eta urpeko proposamenez gain, frantsesaren presio handiaren menpe baina bizi-bizirik dagoen polinesiar kultura bertatik bertara ezagutzeko aukera ederra da Mo'orea. Turistei begira Tiki Village Cultural Center-ek eskaintzen dituen dantzekin eta antzezpenekin batera, hizkuntza biziberritzeko borondate argia erakutsi dute uharteko herritarrek.

Cook badia atzean utzi eta Opunohuko bidea hartu aurretik, uhartearen erdigunerantz jo dugu. Rotui mendiraino igoera gogorra eta neketsua da, baina, hori bai, tontorretik dagoen ikuspegia nekez ahaztekoa da. Osterantzean, errepidea Belvedere begiralekuraino igotzen da oihaneko bihurguneetatik, bidean marae edo tenplu polinesiarren arrastoen aldamenetik goazela. Begiralekutik kostalde osoa, arrezifeko uren tonu-aldaketak eta, oihanaz gaindi, mendi tontor pikoa ageri dira.

Herri indigena askok egiten dute hizkuntzaren eta lurraren eta ingurumenaren babesaren arteko lotura, eta oihanetik itsasertzera eginda, Mo'oreako leku berezietako batera joan gara. Te Mana O Te Moana itsasoko bizitza babesteko lan egiten duen erakundea da, kaltetutako itsas dortokak bereziki. Santutegi gisa prestatuta, izaki paregabeak bertatik bertara ezagutzeko aukera Mo'oreak dituen eskaintza ugarien zerrendan oso goian dago.

Inguru guztia oso atsegina da, Ta'ahiamanu hondartza, esaterako, uharteko ederrena da askoren iritzian. Hare zuria eta palmondoak ikus daitezke, postal itxurako irudiak azken finean.



KULTURA BIZIA Inguru guztia oso atsegina da, Ta'ahiamanu hondartza, esaterako, uharteko ederrena da askoren iritzian. Harea zuria eta palmondoak eta postal itxurako irudiarekin batera, arrastiko patxada eskaini digu hareatzak: bertako herritarrak arratsalde-pasa, solasean zein petanka jolasean. Aurreraxeago, Maharepa udalerritik irten gabe eta ilunabarretik gertu (tropikoan eguna amaitzea eta gaua iristea oso bizkor gertatzen da) eta mendebaldeko muturrera helduta, asteburuko azoka dago hondartza parean.

Hurbil dugu Tiki Village Cultural Center. Ados, turistentzat berariaz antolatutako txokoa da, baina polinesiar dantzak ezagutzeko txokorik onena da uhartean, hizkuntzaren aktibistek ere aholkatu digutenez. Afaritara joan eta gero izan ohi da ikuskizuna, baina badago afaririk gabe dantza saiorako sarrera bakarrik hartzeko aukera ere, Polinesiako kondairak eta mitoak dantza bidez ezagutzeko.

Uhartearen hegoaldeko bisitan ibilbidea ez da hain zirrargarria, txoko ederrak ageri badira ere; resort garestien ordeztatu merkeagoak ere aurki litezke bazterrotan. Polinesiar berri samarrak izan arren, eliza koloretsu eta ederrak egon ohi dira, eta Mo'orea ez da salbuespena; Haapi-tin, esaterako, errepidearen alde banatan daude tenplu protestantea, arrezifera begira, eta katolikoa, mendiaren ingurura zorroztatu atzean duela.

ITSASOKO KOLOREAK Ezin Mo'oreako kostaldeko proposamenez mintzatu Lagoonarium aipatu gabe. Hitza bera dibertigarria da, eta lekua bisitatzea uhartean egin daitekeen esperientziarik berezienetakoa da. Hemen, arrainzabalekin, marrazoekin eta arrain tropikalekin igeri egin liteke, humuhumunukunukuapua-rekin kasu (hau da, arrezifeko balistido arraina).

Aintzirara iristeko, txalupa bat hartu dugu Motu Ahi irlaraino, minutu pare bateko itsasbidea da, eta Lagoonariumerako txartela erostean hartzen da irlarako txalupa. Motu Ahiko hondartzak izugarri ederrak dira, eta behar bezain goiz iritsiz gero, hondartzako txabola bat eskatzeko aukera dago, ur gardenei begira, egurrezko edo koralez egindako polinesiar figurak parean. Edozein unetan urpean ibiltzeko aukera ederra izanda ere, egunean birritan janaria banatzen denean sortzen den ikuskizuna itzela da. Koloretako arrain txikietatik marrazo taldeetara, esperientzia paregabea izateko aukera dago.

Uharte-nagusira itzulita, Tahiti parez pare ageri zaigu, baina ez da oraindik ferryaren ordua. Aireportutik gertu, Temae hondartza paregabea dago, eta hara bidean, Toatea begiratokia, Mo'oreako hondartza gehienetan bezala, turkesa urdin koloreko ur garbia, palmondo garaiak eta eguzkiak jotako harea zuriarekin batera, zutabeen gainean itsasoan eraikitako etxolez osatutako resort garestia dago. Hotela patrika gehienek ahaletatik kanpo dago, baina hondartza edonorentzat da, zorionez. Asteburuan iritsita, gainera, sekulako giroa dago, familiak picnicean, lagun taldeak olgetan, eta musika lagun bildutako adiskide zein ezezagunak, polinesiar doinuak kantatzeko.

GIDA PRAKTIKOA

NOLA HELDU

Frantziaren mendeko Polinesia doazen bidaiariak Papeeteko aireportura iristen dira, Tahitin. Gehienetan, Parisen eta Los Angelesen (edo San Frantziskon) egiten da eskala, baina badira konexioak Hawaii, Japonia, Australia eta Zeelanda Berriarekin. Polinesiako artxipelagoetara hegaldiak ere Papeetetik abiatu ohi dira, Mo'oreara horien artean. Era berean, Mo'oreak baditu konexio zuzenak Raiatea, Huahine eta Bora Bora irlak, Tahiti itzuli gabe. Beste aukera bat, askoz merkeagoa eta ekipaje gehiago eramatea ahalbidetzen duena, 30-60 minutu irauten duen ferrya da.

OSTATUA

Frantziaren mendeko Polinesia leku garestia da, eta Mo'orea ere halaxe da. Itsaso gainean etxolak dituzten ostatuak munduko garestien artean daude. Baina badira aukera merkeagoak, apartamentuak alokatzen dituzten konpainien bidez, baita kanpin egiteko aukera ematen duen ostatu bat ere.

MUGITZEKO

Norbere garraiorik gabe zaila da mugitzea, eta garestia suerta liteke beti txangoak kontratatzen ibiltzea. Auto-alogera Mo'orean bertan egin liteke, edo Tahititik ferryan ekarri (alokatzean galdetu behar da, hori bai). Motorrak ere ohikoak dira, eta bizikletaz (arrunta edo elektrikoa, mendi ingurua bisitatu nahi bada batez ere), aukera ederra da.



TALAIA BIDEA

Itsasoa mendian



Testua eta Argazkiak **Andoni URBISTONDO**

Mendian itsasoa ere lerroburu egokia litzateke. Kantauri Itsasoko kostaldeko bidean, Zumaiatik Debara, mendia eta itsasoa bat dira. Olatuek flysch-eko arroka eta itsas labarrak ferekatu eta moldatu dituzte gizaldietan zehar, eta pelikuletako argazkiak utzi, gure gozamenerako. Kosta da, baina kostan ere aldapak daude, eta handiak. Bost ordu luze beharko ditugu 14 kilometroko ibilbide eder eta aberatsa osatzeko.



Mendizaleak eta itsaso zaleak bat egin dezaket txoko berezia da Euskal Kostako Trail-a. Talaia Bidea ere esaten zaio, mende batzuk atzera kostaldea zaindu eta baleak ikuskatzeko zeuden talaiengatik. Baionan hasi eta Bizkaiko Kobaron herrira arte hedatzen da. Hainbat etapatan egin daiteke Kostako Done Jakue bideko zati hau, eta nahi beste dokumentazio topatuko dugu, Europako S9 sareko bideetako bat baita Talaia Bidea. Erreportaje honetan Gipuzkoako Zumaia eta Deba herriak lotuko dituen tartea egingo dugu.

14 kilometro daude, eta kostaldean, edo kostaldetik gertu badoa ere, ez da paseo edo bide erraza. 600 metroko desnibel metatua du, eta aldapa gaizto batzuk ere bai, etapako bigarren zatian batez ere. Astero ordu batzuk sarritan ibiltzeko ohitura edukitzea komeni da etapa hau modu egokian egiteko. Bidean geologiak gure lurra nola moldatu duen ikusi eta ikasiko dugu, ta-



laia dotoreekin gozatu, Kantauri Itsasoan arteak badaudela jabetu, eta gure planetakoa ez den munduan barneratu, Sakoneta badiatxoa eta Mendata-gaina begiratokien artean. Debara bidean, Topo goitizenarekin ezagututako trenbide zaharretik pasatuko gara, tunel batzuk zeharkatuz eta txangoa edertuz.

Bidean abiatu aurretik geldialdi luzexka egin behar dugu Zumaian, Euskal Geoparkean ekialdeen dagoen herrian (Deba eta Mutriku dira beste biak). Han baita ikusgarrien flysch izeneko geologia gunea. Urrian munduko ehun geologia leku interesgarrien zerrendan sartu zuten flysch hau, eta izendapen horrek berez daukan erakargarritasuna biderkatu du. Turismo handia erakartzen du, eta hala izan behar, antzeko formazio geologiko gutxi baitaude bizi garen mundu txikian.

Lurra planetako azken 50 milioi urteko bizitza azaltzen duen liburua da flyscha, eta itsaslabar eta arroka multzo bakoitza liburu horretako atal berezi bat, orri bat da. Flyschak erakutsi die geologoei nola zen bizitza duela

Erreportajea abiatzen duen orrian, Sakonetako amildegi ikusgarriak. Txoko ederra da, eta marea behean dagoenean oinez pasatzen da itsaso ondotik. Ondoko argazkian, Zumaia flyscha eta San Telmo ermita. Munduko 100 gune geologiko interesgarrien artean izendatu zuten Euskal Kostaldeko Geoparkea. Orri honetan, Baratzazarrak behatokiko ikuspegia, Zumaia herria, txakolin mahastiak eta Sakonetara daraman bidea, Elorriaga auzo ondoan.



Argazki handian, Katalinako Begiratokian dauden informazio panelak. Deban dago, baina ekialderantz Jaizkibel arteko ikuspegi aberatsa daukagu. Ondoan, Santa Katalina baserriaren aurriak. Argazki bertikalean, Zumaia eta Deba arteko Talaia Bidean topatuko ditugun seinaleetako bat.

hainbat milioi urte, noiz gertatu ziren eguneroko hizpide ditugun aldaketa klimatikoak, eta nola erreakzionatu zuen planetak. Baita dinosaueroak desagerrarazi zituen meteoritoa 65 milioi urte atzera gertatu zela. Algorriko kalan iridio osagai kimikoaren arrastoak antzeman zituzten adituek, meteoritoetan ohikoa den osagaia, eta horri esker baieztatu izan da meteoritoaren teoria. Itzurun gainean tentetzen den San Telmo ermitari ere bisita lasaia egitea komeni da, flyscha bere handitasunean ezagutzeko eta gozatzeko. Ez zarete damutuko.

Desnibel apur bat galdu eta Debarantz doan bidea hartuko dugu, Donejakue bidetik. Txakolin mahastiak agertuko zaizkigu nonahi, eta laster Elorriagako atsedenera iritsiko gara (Elorrixa, bertakoentzat). Hamai-ketakoa egiteko toki txukuna da, komun eta guzti, baina udan lepo betetzen da. Han, ohiko bidetik jarraitu gabe, itsasorantz egingo dugu, Baratzatzarrak behatokia, Kantauri Itsasoa bere handitasunean dastatzeko.

SAKONETA ETA MENDATAGAINA Atzera bueltatuta, Elorriaga auzora iritsiko gara, eta han adi ibili behar da bide zuzena hartzeko. Donejakue bidea hartzeko tentazioa izanen dugu, gezi hori eta guzti, baina GR bidea hartuko dugu gure eskuinerantz, zuriz eta gorriz marraztutako bidea. Itsasorantz egin behar dela gogoratu badaezpada, eta ipar mendebalderantz beti. Ordu erdi pasatxoan pinu eta arte zuhaiztiak igaroko ditugu, eta Deba seinalea erakusten duen geziari kasu egin, Arantza Goikoa baserriaren ondoan. Betizuak libre dabilta hango belazeetan, eta erditu berritan badaude, kontuz ibili gehiegi hurbildu gabe. Abere basatiak dira, eta gizakiok gara paraje haietan arrotzak.

Kantauri Itsasoaren kresal usainak adieraziko digu Sakonetatik gertu gaudela. Paraje benetan ikusgarria, geologiak milioika urtetan zizelkatu eta moldatutako itsaslabar eta amildegi ikusgarriak nonahi. Marea behean dela egokitzen bazaigu, Sakonetako ilargi itxurako paisaia oinez zeharkatu ahal izango dugu, eta beste mundu batean gaudela pentsatuko dugu, natura zer egiteko gai den sinetsi ezinik. Geologiak bi osagai bakarrik behar baititu, bere lana egiteko: presioa eta denbora, eta bi horietatik sobera izan du, eta edukiko du aurrerantzean ere, gauzak normal.

Sakonetako jaitsiera irristakor samar egin daiteke egun euritsuetan. Bestela izanda ere, komeni da indarrak gordetzea, txangoko azken herena benetan exigentea baita fisikoki. Bi aldapa piko igo beharko ditugu Mendatagaina behatokia iristeko, Debako lurretan dagoeneko. Hango ikusmirak erlojuaren orratzak geratzeko tentazioa emango digu, zoragarria baita flyscheko kostalde osoa begirada bakarrean ikusi ahal izatea.

Mendatagainetik azken ordu eta erdiari ekingo diogu, eta, bide politetik, Euskotren edo tren zaharra zeneko bidean barrena egingo baitugu aurrera, tunel eta guzti. N-634 errepidea zeharkatuko dugu apropos horretarako eraikitako egurrezko zubitik, eta segituan Katalinako Begiratokia iritsiko gara, denetan azkena, Deba herritik salto txiki batera baino ez. Deban tren geltokirainoko bidea egin beste lanik ez dugu izango, txango benetan ederra bukatutzat emateko.

GIDA PRAKTIKOA

KOKAPENA

Kostako Trail-ak, edo Talaia Bideak Euskal Herria zeharkatzen du ekialde-mendebalde, edo mendebalde-ekialde norabidean. Baionan hasten da, Lapurdiko hiriburuan, eta Bizkaiko Muskiz herrian bukatu, Kobaron auzoan, hain zuzen ere. Zenbait etapatan egin daiteke, oinezkoaren nahiaren arabera.

NOLA IRITSI

Zumaia eta Debako bidea egiteko Zumaia joan behar da. Hara autoz joatea da errazena, txangoa bukatuta Deban orduro trenak baitaude, atzera oinez egindako bidea trenean egiteko, ordu laurden eskasean. Zumaia joateko A-8 autobidea edo N-634 errepide nazionala hartu behar da. Zumaia Donostiatik 35 kilometrora dago, eta Bilbotik 70 kilometrora.

EZAUGARRIAK

Talaia Bidea bide eroso da, pista eta baserri bidea tarteka, xenda beste zati askotan. Itsasoa eta mendia nola uztartzen diren ikusiz gozatuko dugu, baita flyscha bezalako formazio geologiko ikusgarrieekin ere. Bisita gidatua egitea komeni da, altxor ia bakar horren berri zehatz edukitzeko. Zumaia eta Deba arteko bidea 14 kilometro luze da, eta 5-7 ordu beharko ditugu, gutxi-asko, herri batetik bestera iristeko.

Arabako Errioxa

begiek edan

Testua: **Jon BENITO** Argazkiak: **Getty Images**



Inteligentzia artifizialeko txat famatuari Arabako Errioxari buruzko erreportaje baterako abiapuntua emateko eskatuko bagenio, ziurrenera horrelako zerbait esango luke: «Arabako Errioxa leku magikoa da, eguzkiak dir-dir egiten du eta haizeak leunki jotzen du. Leku horretan, muinoak uhinak itsasoan bezala mugitzen dira, eta zelaiak mahats-hosto eta urre kolorez tindatzen dira».





Arabako Errioxa tempranillo mahatsekin eta bertako beste barietate batzuekin egindako kalitatezko ardoengatik da ezaguna. Jatorri-deituraz bereziak, fruitu gorri heldua urtuta, espezia eta larru aromaz osatuta, klima, lur eta mahats barianteen konbinazio bakarraren emaitza dira ardoak. Koordenada eta egiteko modu zehatz batzuen mirarizko zuku, horrenbestez. “Lokartutako lehoiaren” azpian daude, ez alferrik, Euskal Herriko upategi ospetsu eta garrantzitsuenetako batzuk, hala nola Mitarte, Remelluri, Viña-Real... “Ardoaren ibilbidea”-ren bidez ezagut daitezke mahatsaren muztio berezienak, upelategi horiek dastaketak eta bisita gidatuak eskaintzen baitituzte, ardoaren elaborazioa eta eskualdeko historia bertatik bertara ezagutzeko.

Baina Arabako Errioxa ez da ardoa bakarrik; Oiondik Ekorara, Bastidatik Guardiara, 10 kilometro luze eta 40 zabal, GPSa autoan lagun, eskualdekoak diren ETSren edo Mursegok Oion gisara bataiatu zuen diskoak pleituta baina inteligentzia emozionalez bidaiatzen duenak, aihen eta lur gorriko errepidetik, historiaren estratu ezberdinak harro bistaratzen dituen eremu bat zeharkatzen duen sentipena izango du.

Historia gizakiaren altueran baitago bertan: milaka urteko luraren eraldaketa eta sedimentaziotik hasi, historiaurreko arrastoekin jarraitu edota Guardian Erdi Aroko harresietan eta muino-gaineko koloredun etxeetatik paseatu daiteke ilunabarra ikusiz, lagunekin txamizoren batean aihen gai-



neko txuletatxo batzuk jan edota irailaren amaieran Katxiren jaitsierarekin gozatuz Oionen.

Mugako eremua izaki, Arabako Errioxa kontraste espazioa da. Negua eta uda, begi zein ezpainen plazera, historiaren eta orainaldiaren gurutzaketa –merezi du Elvillarren Sorginaren Txabola trikuharria edota Burdin Aroko La Hoya herrixka bisitatzea Guardian-. Izan ere, aspalditik gaurdaino heltzen den eremuaz gainera, Arabako hego-mendebaldekoa, espazio intimo bat ere bada izan. Handik itzultzean oroimenean dakargun geografia bat da, ardo kopa batean berpizten zaigun gomuta.

Bertaratzeko aitzakia bat behar baduzu, jakin, otsailaren 11n Lapuebla de Labarcán Uztaberri Eguna ospatuko dela. Aurtengo uzta dastatzeko aitzakian, zentzumenentzako erabateko esperientziaz gozatuko duzu historiak, paisaiak eta ardoak gurutzatuko diren egun kosmiko horretan.

Toloño mendilerroa eskuinera, Bernedoko mendatetik behera, begien mugaraino hartzen duen Ebro lautada agertuko zaio parez pare bisitariari. Oinez zein bizikletaz, mahasti artean galtzeko parada ederra eskaintzen du paisaiak. Huraxe du bereizgarri eta eder: urtaroz urtaro, nabar eta tonuz eraldatzen diren 11.500 hektarea mahasti.

Bisitariak ez du zertan nonbaitera joan Arabako Errioxa ezagutzeko. Nahikoa zaio arratsalde batez mahastien arkupea galtzen uztea, fruitu horiek ekarriko dituzten lilurak irudikatzen paisaia edanez, egunerokoaren burrundaraz apartera.

Bisitariak ez du zertan nonbaitera joan Arabako Errioxa ezagutzeko. Nahikoa zaio arratsalde batez mahastien arkupea galtzen uztea. Hala ere, bertaratzeko aitzakia behar baduzu, otsailaren 11n Lapuebla de Labarcán Uztaberri Eguna ospatuko da.



Maskaradak martxan dira, orain hasi eta udaberrira arte

URTARRILAK 15-APIRILAK 30

Urtarrilaren erdian hasi ziren maskaradak Maule-Lextarreko plazan, eta udaberrira arte luzatuko dira. Pandemiaren gogorrena pasata, Barkoxeko gazteek hartu zuten, 2021ean, maskaradak aurrera ateratzeko ardura. Ondoren, iaz, Atharratze eta Alozeko gazteak aritu ziren. Zuberoko hiriburuko gazteen txanda da orain. Ondorioz, aurtengo maskaraden denboraldia bertan hasi eta bertan amaituko da.

Maulez gain, urtarrileko Atharratzeko eta Pagolako saioak igarota, otsailean, ikuskizunek larunbatak eta igandeak tartekatuko dituzte. 5ean Mendikotan izango da, 11n Gameren, 19an Ürrüstoin eta, azkenik, 25ean Al-

tzürükün. Printzipioz, maskarada guztietan hasierako ordua 15.30 izango da.

Martxoan lehen hamabostaldian larunbatak eta bigarrenegun igandeak hartuko dituzte maskaradek. Lehen bi larunbatetan Muskildi eta Idauze-Mendi eta hilabeteko azken bi igandeetan Zalgize eta Urdiñarberen txanda izanen da.

Bukatzeko, apirilean igande guztietan izanen dira ikuskizunak, ondoko hurrenkeran: Larraine, Barkoxe, Sohüta eta, esan bezala, bukatzeko sorlekura itzuliko dira, Mauleko gaineko errebotera, hain zuzen ere.

Aurten, guztira, 13 udalerritan eskainiko da ikuskizuna. 25 herri apuntatu ziren hasiera batean, eta zozketa bidez hautatu behar izan dituzte aurtengo maskaraden topaleku izango diren udalerriak.

Argia piztu sasoi ilunetan

OTSAILAK 9-11

Otsailaren 9tik 11ra egingo da Gasteizko hirigune historikoan Umbra Light jaialdia. Hainbat ibilbide izango ditu argi jaialdi honek eta berriz ere argiz eta artez beteko ditu Gasteizko plaza, eraikin eta espazio publiko esanguratsuenak.

Hirugarren edizioa du festibalak, eta aurten nabarmen-tzekoa da Prado parkean ezarriko duten Dennis Nolderen Frames artelana: hau eraldatu egiten da, ikusleak barne hartzen dituen eskala handiko pantaila bihurtzeko, eta ingurune naturala argi dinamiko eta kolorezko gradienteen erritmoarekin integratzen du. Hori gutxi balitz bezala, Umbra Jaialdiaren leloan oinarritutako irudiak eta testuak ere erakutsiko ditu. Jaialdiak aurten aukeratutako hitza "empatia" da.

Sasoi ilun hauetan argia eskaini eta bisitariak liluratu eta pentsatzera bultzatzeko emanaldiok 19:00etatik 22:00etara izango dira.



Saenz de Oiza, Oteiza eta Huarte berriro bilduta, Altzuzan

MARTXOAREN 12RA ARTE

Marisa Saenz Guerra, Javier Saenz Guerra eta Vicente Saenz Guerra komisarioen eskutik, Oteiza Museoko erdiko aretoan egindako esku-hartzea zabaldu dute. Bertan Francisco Javier Saenz de Oizak 1950 eta 1992 bitartean egindako 9 proiektu aztertzen dira. Jorge Oteizaren eta Juan Huarteren laguntza izan zuen eta elkar-lan horren 100 marrazki, plano, maketa eta argazki baino gehiago bildu dituzte orain. Martxoaren 12ra arte egongo da zabalik erakusketa, baina Altzuzara gerturatzeko ez da aitzakiarik behar.



ESKIA NAHI ETA EZIN

Gezurrezko elurra

Testua: **Ekhi MARTIN** Argazkiak: **Charly TRIBALLEAU** - **Alex HALADA** / AFP

Negu epelaren ondorioz, Europako eski estazioak elurrik gabe daude. Pandemia ostean bezero asko erakartzeko itxaropena zuen negozio horrek, baina bere ametsak zapuztuta ikusi ditu. Horri aurre egiteko modua elurra sortzea da, kanoien bidez, praktika horrek dakartzan ondorio kaltegarriak kontuan izan gabe.



Eskiatzaileak elurra zapaltzeko irrikaz daude, baina aurtengo negua ez da horretarako aproposa izan. Europako hainbat pistatan atek ireki eta aste gutxira itxi behar izan dituzte, elur faltagatik. Pandemiaren ostean denboraldi ona izateko itxaropen guztiak zapuztu dira, eta nahiz eta oraindik hotza eta elurteak iristear dauden, leku askotan elur-kanoiak erabili behar izan dituzte zabalik zeuden pistak duintasunez mantendu ahal izateko.

Altuera eskaseko lekuetan ari dira pairatzen negu epelaren ondorioak; hain zuzen, gertuen ditugun Pirinioetan. Garaiera handiko lekuetan, Alpeetan esaterako, eski estazioek ia normaltasunez ari direla esan dute, pista batzuk itxita dituzten arren. Denboraldia luzatzeko, elur-kanoien erabilera ezinbestekoa izango dela dirudi, eta, itxura denez, etorkizunerako joera ere hori da. Hori dela eta, elurra egoera epelagoetan sortzeko gai diren teknologiak garatzen hasi dira. Kanoi berri baten sorkuntzan ari dira



enpresak, zeina -2°C eta 24°C -ren artean elurra sortzeko gai den. Hau da, udan ere eskiatu ahal izango da etorkizunean.

URAREN BIDE NATURALA Horrek, berriz, kalte ekologikoak dakartza, ez baita zentzuzkoa ura xahutzea lehortea dagoenean, etxebizitzetako kontsumoan mugak jartzen direnean, Katalunian joan den azaroan gertatu zen bezala. Elurra sortzeko erabiltzen den ura menditik jasotzen dute eta hori berriro urtzen denean ez da ziklora itzultzen, beste isurialde batera erortzen baita; hala, ibilbide naturala hankaz gora jartzen da, bidean ura jasoko ez duten landare ugari ere galtzen direlako, eta horrek zuzenean eragiten du faunan.

Bestalde, elurra sortzeko prozesua lorategi bat modu automatikoan ureztatzea bezalakoa da, eta, horretarako, alde batetik, ingurunea eraldatzea beharrezkoa da (kanoiak instalatzeko), eta, bestetik, eremu hori ohi baino denbora luzeagoan «ureztatzeak» ez du onik ekartzen, beste behin estazioaren eta haren inguruan dagoen flora eta faunari zuzenean eragiten baitio.

Erreportaje hasieran, Kataluniako Font-Romeu/Bolquereko estazioa. Orrialde hauetan, eskiatzaileak teleaulkietan; kanoiak urez hornitzeko ponpak, eta elur kanoiak martxan Peyragudesko eta Semmering estazioetan.



MASKARAK ETA MOZORROAK, UDABERRIARI DEIKA

Bulgariako Yardzhilovtsi herrian Kukeri inauteriak ospatzen dituzte, kolore biziko maskaren eta mozorroen jaialdia. Horien bidez, udaberria hurbilago dela ospatzen dute.

Euskal Herriko joaldunen pareko pertsonaiak dira protagonistak Kukerian; izan ere, artilez jantzitako gizonak –batez ere, nahiz eta batzuetan emakumeak ere mozorrotzen diren–, gerrian lotutako kanpaiak jotzen dituzte jauzika eta dantzari, izpiritu gaiztoak uxatzeko xedez. Urte berrirako uzta ona, osasuna eta zoriontasuna ere ekartzen dutela diote. Nikolay DOYCHINOV

METROAN PRAKARIK GABE JOATEKO EGUNA

“No Trousers on the Tube Day” edo Metroan Prakarik Gabe Joateko Eguna egin zuten Londresen urtarri-laren 8an. Britainia Handiko hiriburuan hamabigarrenez ospatu dute aurten. Gero eta parte hartzaile gehiago ditu, neguan hankak estali gabe ibiltzeko ausarta izan behar den arren.

Urtea umorez hasteko modu bat da londrestarrentzat, eta tradizio bilakatu da jada. Zazpi lagun arteen txantxa bezala hasi zen hark indarra hartu du, lanera joan aurretiko festa txikiaren forma hartu arte. «Ohitura» 60 herrialdetara zabaldu da jada. Laster ikusiko dugu Bilboko metroan jendea kulero eta galtzontzilotan? Jus-

tin TALLIS | AFP





TENPLURA BIDEAN, OPARITXO BAT

Senso-ji Tokioko tenplurik zaharrena eta ezagunena da. Asakusa auzo ospetsuan dago eta bertakoak zein turistak erakartzen ditu urteko edozein sasotian. Hori dela eta, den-dari txikientzat leku paregabea da. Tenplura doan Nakamisedori kaleak Senso-jik berak bezainbesteko interesa du, han lor daitezken detaile eta eskulanengatik. Yuichi YAMAKAZAKI | AFP



ERRUSIAKO PAISAIA GUZTIAK BATERA

Moskuko Kremlin tradizionalaren alboan dago Zaryadye parkea, hiriko sinbolo berrietako bat. Errusia osoko paisaiak irudikatzen dira han, txoko ezberdinetan kokatuta. Parketik gezi bat bezala atera eta berriro sartzeko den zubia erakargarri turistiko nagusietako bat da. Horrez gain, erakusketak eta kontzertuak ere egiten dituzte parkean. Yuri KADOBNOV | AFP



SARKOFAGOA ETXERAKO BIDEAN

Egipto altxor arkeologikoz oparoa den herrialdea izanik, lapurren helburua ere izan da. Hango hilotiak arpilatuak izan dira askotan, eta horietan aurkitutako objektuak mundu osoan salduak.

Azken aldian, Egiptoko Gobernu berea den ondarea berreskuratzen saiatzen ari da. Jaso duen azkena, ustez, Ankhenmaat deituriko apaizarena zen sarkofagoa izan da. Houstongo Zientzia Naturalen museoan zegoen, eta Abu Sir-eko nekropolitik –Kairoko iparraldean– lapurtua izan zela zehaztu zuten adituek. Handik Alemaniara eraman zuten, eta 2008an AEBetara iritsi zen. AFP



BI IKUR ERRALDOI AURREZ AURRE

Aski ezaguna da Tokion badagoela dorre bat, Parisen dagoen Eiffelen antzekoa, baina txikia eta gorria. Irudian ageri den Skytree deiturikoa ez da hain ezaguna, eta Japoniako hiri-buruaren ikuspuntu aparta eskaintzen du honek ere. Kutsadura gutxi eta zeru garbia dagoen egunetan Fuji mendia agurtu dezakegu han goitik. Philip FONG | AFP



OUIDAH-KO VOODOO FESTIBALA

Ouidah hirian (Benin) dago voodoo kulturarik handiena, eta horregatik han egiten da urtero Voodoo Festibala, urtarri-laren hasieran, ia 10.000 pertsona erakartzen dituena. Pitoi-en tenplura abiatzen dira fetixeei omenaldia egitera, eta ondoren prozesioan joaten dira hondartzaraino, festa eder bat egiteko. AFP



URTE BERRI ON, UNTXIAREN URTEA HASI BERRI DA

Mendebaldeko jendeak urtarrilaren lean estreinatzen du urtea. Txinak, ordea, ilargiari begiratzen dio urtea amaitu dela jakiteko; horregatik beste egun batean ospatzen dute herrialdean bertan eta mundu osoko txinatar komunitateetan. Untxiaren Urtea urtarrilaren 22an hasi zen haientzat.

Bangkoken, esaterako, komunitate sendoa dago, eta urte berri-rako presaketa handiak izan ziren. Apaingarriz jositako denda pila bat jarri zituzten Txinatow-nen. Lillian SUWANRUMPHA



GURUTZAONTZI EUOPARRA VENEZUELAN

Dantzez eta musikaz ongi etorria egin zioten Amadea gurutzaontziari, Margarita Uharteko El Guamache kaira iritsi zenean. Hura izan da 15 urtetan Venezuelara iritsi den lehen gurutzaontzi euoparra. Inguru hartakoek pozik hartu zuten albistea, nabigazioak turismoa indartuko duelakoan baitaude. Gustavo GRANADO | AFP



«ACULLICO»-AREN EGUN NAZIONALA

«Acullico» koka murtxikatzearen ohitura da Bolivian, eta hain justu bertan ospatu dute Acullicoaren Egun Nazionala. Urtarrilaren 11ko ospakizunak herrialde osoan egiten dira, eta presidenteak ere parte hartzen du. Egun nazional honen xedea koka hostoen erabilera tradizionala aldarrikatzea da.

Aizar RALDES | AFP



GAZAKO HONDARTZAKO HERENSUGEAK

Gazako hondartza, bainatzeko edo eguzkia hartzeko lekua izateaz gain, Palestinan bizi den egoerarentzako ihesbide bat ere bada. Saltoak, harearekin artea... eta ahotik sua botatzaren duten “herensugeak”. Gazte batzuk iluntzean trebatzen dira, bertara hurbiltzen diren beste hainbati ikuskizun berezia eskainiz. AFP



ENTZUN. HITZ EGIN

Hitz egiteko,
entzun egiten
dugulako.

naiz:irratia

Donostia 93.8 / Urola 91.8 / Goierri 102.2 / Legazpi 94.6 /
Bilbo 92.2 / Gernika 96.7 / Durango 97.4 / Gasteiz 91.5 /
Bortziriak 103.1 / Leitza 95.1

naiz:irratia

irratia.naiz.eus

